

## **AISIALDI BEGIRALEEN LAN POLTSA SORTZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRI BEREZIAK**

### **LEHEN OINARRIA.- Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da aisialdiko begiraleen lan poltza sortzea, 2014ko Uda Kanpainarako behar diren behin behineko langileak kontratatzeko.

Bete beharreko funtzioak aisialdiko begirale bati dagozkionak izango dira.

### **BIGARREN OINARRIA.- Hautagaien baldintzak**

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako, honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko itunei jarraiki, langileen zirkulazio librea aplikatu dakiekeen lurraldeetako nazionalitatea izatea.
- b) Halaber, espainiarren eta Europar Batasuneko Estatuetak nazionalitatea dutenen ezkonlagunak aurkez daitezke, legalki banatuta ez badaude, baita euren eta ezkonlagunen ondorengoak ere, betiere banatuta ez badaude, 21 urtetik beherakoak ez badira, edo 21 urtetik gorakoak izanik haien bizkar bizi badira.
- c) 18 urte beteta izatea eta ezinbestean erretiratzeko adinera heldu ez izana.
- d) Lanpostuari dagozkion eginkizunak normal betetzea eragozten duen gaixotasunik edo ezintasun fisikorik ez izatea. Hori bere garaian egiaztatuko da hautagaiei, kontratatzerako unean, egin dakiekeen azterketa medikoaren bitartez.
- e) Diziplina espediente bidez Administrazio Publikoen zerbitzuetatik bazterturik ez egotea, eta funtzio publikorako ezgaitua ez egotea.
- f) Inongo bateraezintasun edo ezintasun lege-auzitan sartuta ez egotea, 53/1984 Legeak, Herri Administrazioen zerbitzura lan egiten dutenen bateraezintasunak arautzen dituenak, xedatutakoarekin bat.
- g) Aisialdi begiraleko titulua, edo baliokidea, edukitzea. Baliokidetzaren kasuan, hautagaiak erakutsi beharko du, eskudun den administrazioak eginiko ziurtagiriaren bidez.
- h) 2. HE edo B2ren baliokidea, Europako marko komunarekin bat datozen euskara titulu eta ziurtagiriaren baliokidetzen arabera.

## **HIRUGARREN OINARRIA.- ESKABIDEAK ETA HAUTAGAIK ONARTZEA**

a) Hautagaiek eskabideak behar bezala beteta aurkeztu beharko dituzte Sakoneta Kiroldegian (Sabino Arana 77), argitaratze egunetik zenbatzen hasita, hamabost egun naturaleko epean. Bertan eskatu beharko dute hautaketa probetan onartzea, eta beren beregi adierazi beharko dute exijitutako baldintzak betetzen dituztela eta oinarri hauek oso osorik onartzen dituztela.

b) Leku hauetan argitaratuko da: Udaletxeko (Elexalde 1) ediktu taulan, Sakoneta Kiroldegian (Sabino Arana 77), Behargintza (Mendibil 3) eta udal web gunean ([www.leioa.eu](http://www.leioa.eu)).

c) Eskabidearekin batera, Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua, deialdian exijitzen den tituluaren fotokopia eta alegatzen diren baldintza eta merituak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira. Merituak eskabideak aurkezten diren unean bakarrik baloratuko dira.

d) Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Alkatetzak ebazpena egingo du onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartuz, eta bertan, zehaztu egingo da merituen atalean lortutako puntuazioa, eta baztertutakoen kasuan, horren arrazoiak. Zerrenda hau lehenago adierazitako moduan argitaratuko da.

e) Argitaratzen den egunetik aurrera, zazpi egun naturaleko epea emango da erreklamazioak jartzeko edota akatsak zuzentzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 71. artikulua zehaztutako terminoetan. Zuzenketa epea igarota, behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean adieraziko dira zuzenketa horien gaineko erabakiak. Behin betiko zerrenda hori eta data lehenago zehaztutako moduan argitaratuko dira. Erreklamaziorik ez balego, ebazpena behin betikoa izango da automatikoki.

## **LAUGARREN OINARRIA.- EBALUAZIO BATZORDEA**

Honako hauek osatuko dute Ebaluazio Batzordea:

- Presidentea: Leioako UKIko zuzendaria
- Bokalak:
  - .- AOT Idazkaritza eta Behin-behineko Idazkari Nagusia
  - .- Kontuhartzailea
  - .- Langile eta Kontratazioetarako ABT
- Idazkaria: kontratazioan interesa duen atal edo zerbitzuko langile bat, hitz egin ahal izango duena baina ez puntuaziorik eman.

Batzorde honek ebaluatuko ditu curriculumean alegatutako merituak, zehaztutako funtzioekin lotutako titulazio ofizialak, eta lanpostuaren funtzioekin lotuta dauden frogatutako ezagutzak eta esperientzia.

### **BOSGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROBAK**

Hautagaiei deialdi bakarrean deituko zaie eta baztertuta geratuko dira agertzen ez direnak. Edozein momentutan, Ebaluazio Batzordeak eskatu ahal izango die hautagaiei aurkezteko agiri originala edo egiaztatze zuzenerako egoki ikus dezakeen beste edozein dokumentazio osagarri.

#### **a) Lehiaketa fasea.**

Merituak eskabideak aurkezteko unean baloratuko dira soilik. Merituok lortuta edo konputatuta egon behar dute eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako. Zerrenda horrekin batera, beharrezkoak diren egiaztagirak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira. Balorazioa egiteko agiri bidez egiaztatu beharko dira merituok. Behar bezala egiaztatzen ez direnak ez dira baloratuko. Gainera, alegatutakoa faltsua dela frogatuko balitz, datu faltsuak eman dituzten horiek hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.

Lan esperientzia baloratzeko, lan egindako hilabete osoak bakarrik aintzat hartuko dira. Esperientzia hori kontratua egin zuen enpresak eginiko ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, eta bertan, egindako lana eta lanean egondako aldia zehaztu beharko dira.

#### **b) Oposaketa-lehiaketaren azken puntuazioa.**

Puntuazioan berdinketa balego, honako irizpide hauen arabera erabakiko da, lehentasunez ordenatuta:

- 1.- Hautagaien esperientzia Uda kanpainen.
- 2.- Lan esperientzia
- 3.- Euskara maila (beharrezkoa denaren ginetik).

Hala ere, berdinketa desegiten ez bada, Ebaluazio Batzordeak pertsona horiei dei egin diezaieke berdinketa desegiteko, bere momentuan erabakiko den proba praktiko baten bidez.

### **SEIGARREN OINARRIA.- LAN-POLTSAREN FUNTZIONAMENDUA**

Hautaketa probak amaituta, Ebaluazio Batzordeak argitaratuko ditu emaitzak. Argitaratze hori ikusirik, behin-behineko lan-poltsa eratuko da, hautaketa proba gainditu duten hautagaiek osatua, eta erdietsitako puntuazioaren arabera ordenatuta. Lan-poltsa honek, aurretik, espezialitate berbererako eginda zeudenak baliogabetzen ditu.

Zerrendak lau urteko iraupena izango du, eta baliogabetuta gera daiteke hautaketa prozesu berria deitzen bada lanpostu hauei lotutako zerrenda eguneratzekotan, edo lanpostua betetzeko hautaketa prozesuaren deialdia egiten bada.

### **ZAZPIGARREN OINARRIA.- AURKAPENAK**

Deialdi hau, Oinarriak eta horietatik eta Balorazio Batzordearen jardunetik eratorritako egintza administratibo guztiei aurkapena jar dakieke, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak aurreikusitako moduan eta kasuetan.

Eta hori guztia argitaratzen da ezagutzera emateko.

Leioan, 2014ko maiatzaren 12an.

Alkate-udalburua

## UDA 2014 KANPAINARAKO BEGIRALEAK KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Bi dira Uda 2014 kanpainarako begiraleak kontratatzeke baldintzak:

- 1.- Aisialdiko begirale titulazioa.
- 2.- 2. Hizkuntza Eskakizuna

Merituak baloratzeko honako protokolo honi jarraituko zaio, eta gehienez, 10 puntu emango dira.

1	EGA titulua edo baliokidea	3,00 puntu
2	Sorosle eta lehen laguntzako titulazioa	0,25 puntu
	Kanpoko Desfibriladore Automatikoa erabiltzeko titulua	0,25 puntu
	Kirol begirale titulua	0,25 puntu
	Uretako sorosle titulua	0,25 puntu
	Aisialdiko begiraleen prestakuntzarako ikastaroak. 0,50 puntu ikastaro bakoitzeko (gehienez, puntu bat).	1,00 puntu
3	Antzeko funtzioetako lan esperientzia egiaztatua Herri Administrazioan (aisialdi begiralea, lanposturako exijitzen diren antzeko funtzioekin): 0,4 puntu hileko, eta gehienez, hiru puntu.	3,00 puntu
	Antzeko funtzioetako lan esperientzia egiaztatua enpresa pribatuan (aisialdi begiralea, lanposturako exijitzen diren antzeko funtzioekin): 0,2 puntu hileko, eta gehienez, bi puntu.	2,00 puntu
	Lan esperientzia lan-bizitzako txostena eta lotutako lan kontratuak edo Udal Idazkariaren Ziurtagiria (tokiko administrazioen kasuan) aurkeztuz egiaztatuko da. Autonomoen kasuan, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan alta eman izanaren agiri konpultsatua. Esperientzia eta ikastaroen lotura lanpostuarekin Epaimahaiak erabakiko du, eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa ikusirik.	